



<b>Ekipoa</b>	<b>Mugikortasunerako hidrogenoa banatzeko sistemak (hidrogendegiak)</b>
<b>Kodea</b>	D-4038
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Erregai-piladun hidrogeno-ibilgailuak erabiltzea ahalbidetzen eta sustatzen du. BEG emisio gutxiagoko ibilgailuak dira eta zarata gutxiago sortzen dute motor termikodun ibilgailuekin alderatuta.
<b>Honetan datza:</b>	<p>Hidrogendegiak hidrogenoa banatzeko ekipamenduak dira. Horietan, hidrogenoa kargatu daiteke 350 barreko presioan garraio astunaren kasuan (kamioiak eta autobusak) eta 700 barreko presioan garraio arinaren kasuan (turismoak eta furgonetak).</p> <p>Horrenbestez, orokorrean beharrezkoa da honako hauek izatea: biltegiatze-ekipoak, konpresiokoak, hornitutako energia kontatzekoak, hidrogeno-fluxua ibilgailuarekin konektatzeko behar den mahuka duten hornigailuak, bai eta ekipoen arteko material osagarri eta konexiokoak ere. Ekipamenduaren parte izan daitezke, orobat, tokiko eta urruneko kontrol-, monitorizazio-, eta komunikazio-elementuak.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	<p>Hidrogeno-ibilgailua modu funtzionalean erabiltzeko, beharrezkoa da mugikortasunerako hidrogeno-banaketako sarea garatzea. Igarobideetatik edo bidaiari eta salgaien garraio-zentroetatik gertu estrategikoki kokatutako hidrogendegiak ezartzean, hidrogeno-ibilgailuak sustatuko dira, eta, modu horretan, gaur egun existitzen ez den merkaturak sortzen hasiko litzateke. Hidrogendegiek, hidrogenozko ibilgailuek bezala, irtenbideak eman ditzakete garraio eta mugikortasun mota guztietako zerbitzuak eta eragiketa-profilak emateko; horrenbestez, ekonomia-sektore guztietan aplikatu daitekeen zeharkako teknologia da. Hala eta guztiz ere, gaur egun lehentasunezkoak dira bidaiarien eta salgaien garraio astuna —bereziki ibilgailuaren autonomia-eskariak albo batera uzten duenean bateriadun ibilgailu elektrikoak erabiltzea— eta matrikulatu gabeko <i>off-road</i> ibilgailuekin lotutako zerbitzuak logistikan, biltegietan, aireportuetan, portuetan eta abarrear. Beraz, teknologia horren aplikazio zuzenekoak honako sektore hauetan izango litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txikizkako erregai-hornidura (EJSN 4730).</li> <li>- Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa (EJSN 4931).</li> <li>- Taxi bidezko garraioa (EJSN 4932).</li> <li>- Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk (EJSN 4939).</li> </ul>



- Salgaien garraioa errepidez eta etxe-aldaketako zerbitzuak (EJSN 494).
- Enpresako ibilgailuak.
- Ibilgailuak alokatzeko flotak.

Azken finean, teknologia hori edozein ekonomia-sektoretan hidrogeno-ibilgailuak erabiltzen dituzten enpresa guztietan aplikatu daiteke.